



AZPEITIA

XXXIV

EUSKAL
ANTZERKI
TOPAKETAK,
2016ko UDAZKENA

AGURRA

Antzerkiak hartuko gaitu, beste behin, azaroan. Haur, gazte eta helduentzako antzerki eskaintza zabala izango da aurtengoan ere Antzerki Topaketan baitan. Beste urte batez euskaraz sortutako, ekoiztutako eta taularatutako antzerki obra onenak ikusteko aukera izango dugu Soreasuko antzokian.

Azaroaren 1ean, *L'entresor* zirko klasikoarekin emango diogu hasiera topaketei eta hila bukatu bitartean denetariko eta denentzako moduko eskaintza prestatzen saiatu gara. Urtero gisa, eskola antzerkiari eutsiko diogu; ikasleek beste ikasleentzako prestatutako antzezlanak aurkeztuko dituzte. Horretaz gain, Soreasun adin desberdinetako herritarrentzat aukeran izango dira ostiral, zapatuetan helduentzat eta igandetan haurrentzat.

Aurtengo topaketez zerbait azpimarratzekotan, Kontxu Odriozolari eta Iñaki Bergara Piori egin nahi diegun keinua aipatu nahiko genuke. Detaile txikia izan arren, hunkigarria izango delakoan baikaude.

Besterik gabe, etorri, ikusi eta goatzera animatzen zaituztegu. Espektakulua hastera baitoa!!!

Josu Labaka
Kultura Batzordeburua

**EUSKAL
ANTZERKIAZ
GOZA DEZAGULA!**



Ez adiorik Kontxu eta Iñaki Pio!

Atzera begira jarri eta iazko topaketetatik aurtengora artean bi hutsune handi nabari ditugu. Azpeitiko antzerkigintzaren bi handik utzi baikaituzte; Kontxu Odriozola eta Iñaki Bergara Pio-k.

Garai zailetan murgildu ziren Azpeitiko antzerkigintzaren muduan. Kontxuk aitari lagunduz eta hari segika ezagutu zuen Perez Arregi plazan luistarren lokalean herriko antzerki amateurraren mugimendua. Iñakik, berriz, berandu deskubritu zuen antzerkirako zuen bokazioa eta Oargi eta Antxieta taldeetan ibili zen hasieran, ondoren ibilbide emankorra izan zuen Azpeitian zein hemendik kanpo, eta hamaika proiektutan parte hartzeko aukera izan zuen.

Bi izar hauen bizitzari errepasoa egitea ez da lan erraza, azkarregi, baina lan eta esperientzia asko bizi ostean utzi baikaituzte.

Nork ahaztu Goenkaleko Maria Luisa eta Kaxkurrio. Biek ere urte luzez egin zuten lan telesail horretan, eta gaur egungo gazte askok, ziur asko, han ezagutu zituzten. Baina bi hauen ibilbidearen anekdota bat besterik ez da Goenkalekoa, ibilbide oparoa izan baitute.

Aurtengo Antzerki Topaketetan herritarren agurra eskaini nahi diegu Odriozola eta Bergarai. Biek ere jaso zuten topaketen baitan omenaldia, baina antzerkizaleon agurra eskaini nahi diegu hilaren 26an.



AZAROAK 1, ASTEARTEA

HAUR + HELDUENTZAT

17:00etan/19:00etan, Plaza Nagusian

L' ENTRESORT TÊTES DE MULES

ALIVE ?



FITXA ARTISTIKOA

- Antzezleak: Angela Neiman, Baptiste Elizagaray eta Dominik Srzednicki
- Zuzendaria: Stephane Fratini
- Eszenografia: Têtes de Mules
- Jantziak: Solenne Capmas eta Ainhua Yarza
- Diseino Grafikoa: Alice Bucher

SINOPSISIA

Tragikomedia magiko eta groteskoa, “side show”aren mundu misteriozura eramango zaituena. Zatoz eta deskubritu gure gizabanako arraro, ohiz kanpoko izaki, eta munstro higuigarrien bilduma! Zatoz eta deskubritu ezinezkoa dena, irudika ezina dena, ulertezina dena!

Ez duzu sinetsi ere egingo zure begiek ikusten dutena! Ezagutu, zuzenean eta aurrez aurre, naturaren gutizia okerrak! Behatxulotik familia arraro bat behatuko duzu.

Junior, 30 urteko eskeleto-gizona, bere amaren sarean harrapatuta bizi dena. Alma, alargun beltza, bere maltzurkeriekin semea manipulatzeko eta kontrolatzeko duena, etengabe berekin bizitzen jarrai dezan.

Almaren bizitza bera ere bere senar zenaren begirada ankerrenaren pean igarotzen da. Eta hori guztia, pista-buruaren gidaritzapean. Bere ikuslegoa nahasten eta manipulatzeko duen zoro berritsu bat da, nahasmendua eta zalantza sortzen ahalegintzen dena eguneroko ogia irabazteko, jendearen ilusioekin jolas eginez. Munstroak edota pertsona arrunt eta normalak dira? Nor gara gu hori epaitzeko?

Ikusten duguna sinetsi beharrean aurkitzen gara, baina zenbaitetan gure buruak jukutria gaiztoak egiten dizkigu, egiaz gertatzen ari dena eta ametsak nahastuz. Gu geu ere, uste dugun bezain pertsona arrunt eta normalak al gara?

AZAROAK 4, OSTIRALA

HELDUENTZAT

21:30ean, Soreasu Antzokian

FRANCOREN BILOBARI GUTUNA

ARTE DRAMA - LE PETIT THEATRE DE PAIN - DEJABU

FITXA ARTISTIKOA

- Zuzendaritza: Ximun Fuchs
- Idazkera: Unai Iturriaga & Igor Elortza
- Aktoreak: Ander Lipus, Patri Urrutia, Manex Fuchs, Zoila Berastegi, Urko Redondo, Pako Revueltas eta Erika Olaizola.
- Argiztapen diseinua: Josep Duhau
- Koreografia: Philippe Ducou
- Musika: Asier Ituarte
- Eszenografia: Jose Pablo Arriaga
- Multimedia: Eñaut Castagnet
- Argazkiak: Guillaume Méziat
- Irudiak: Ainhua Resano
- Web master: Roberto Quintana
- Administrazioa: Iasone Parada, Elorri Etcheverry, Xabino Alkorta, Kattalin Ezcurra, Irantzu Azpeitia eta Elise Robert Laudette

SINOPSISIA

Irakik hamar urte eta leuzemia ditu. Joxanek berrogeita sei urte eta gerra zibileko obus baten txatara buruan. Etorkizun bideragarriak ez duen ospitalean iragana eta oraina kateatzen dira Migel eta Kristina medikuen ametsetan. Itxarongeletan sekula agertzen ez diren pazienteen izen zerrendak entzuten dira ordena alfabetikoan eta Carmen Martinez-Bordiuk betetzen du bihotzeko aldizkari maiztuaren azala.

Iraun beharraren gaitzak jotako komunitate baten hezurren eta gezurren erradiografia traumatologikoa da Francoren bilobari gutuna.



AZAROAK 5, LARUNBATA

HELDUENTZAT

21:30ean, Soreasu Antzokian

KOADERNOA ZURI HIKA TEATROA



FITXA ARTISTIKOA

- Egileak: A. Iturbe eta A. Intxaurreaga
- Antzezleak: Itziar Ituño, Nagore Aranburu eta Miren Gojenola.
- Zuzendaria: A. Intxaurreaga
- Zuzendari laguntzailea: Miren Gojenola
- Musikaren diseinua: Xabier Erkizia
- Argien diseinua: Xabier Lozano
- Espazio eszenikoa: M. Intxaurreaga eta Xabier Mujika
- Jantzitegia: Xabier Mujika
- Koreografia: Noemi Viana
- Grafikaren diseinua: Atelier Laia
- Argazkiak: José Luis López de Zubiria
- Eszenografiaren errealizazioa: Eskenitek
- Talde teknikoa: Eraginstac
- Ekoizpena: Hika Teatroa
- Banaketa: Hika teatroa: Amaia Kerexeta

SINOPSISIA

Begoña eta Arrate ahizpak dira. Hogei urteren ondoren jaiotetxean egingo dute topo, ustekabean. Arrate beheko bizilagunak deituta itzuli da, denboraldi bat baitarama hoska, soinu arraroak entzuten dituela esanez. Ama hil berria da eta hutsik behar luke etxeak. Baina Arratek Begoña aurkitzen du bertan. Ezustean.

Bi ahizpak aurrez aurre elkartzeak elkarri kontuak eskatzeko balioko die. Ezer gutxi dakite amak batengan eta bestearengan utzitako arrastoez. Nahikoa lan izan du bakoitzak bere bitzta eraikitzen. Nahikoa lan bitziten.

AZAROAK 6, IGANDEA

HAUR + HELDUENTZAT

17:00etan, Soreasu Antzokian

GU EZ GAUDE BAKARRIK BOROBIL TEATROA



FITXA ARTISTIKOA

- Izenburua: GU (Ez gaude bakarrik)
- Iraupena: 50 minutu
- Ikuslegoa: 5 urtetik gorako haur eta gurasoak
- Aktoreak: Asier Sota, Julen Vega, Imanol Espinazo eta Hannah Berry
- Eszenografia: Josean Álvarez eta Peio Villalba.
- Atrezzoak: Linda Krüeger, Ingrid Krüeger, Joxemi Errondosoro, Josean Álvarez eta Peio Villalba
- Jantzi diseinua: Nagore Dendariarena
- Jostuna: Paquita García, Nconcept store eta Angelita denda
- Kartela: Ekhi Vegas eta Iñaki Martinez
- Argiak: Paco Iglesias
- Musika originala: Ekhi Vegas
- Zuzendaria: Anartz Zuazua

SINOPSISIA

Mundua kolorez eta animaliaz beteta dagoen leku eder bat da. Gizakia naturaren parte bezala bere ingurunea errespetatu eta zainduko du baina momentu batean tximiniak eraikitzen hasiko da eta tximiniak dirua emango dute. Diruarekin dena lortu daitekeela sinistuko du. Baina lortuko duen gauza bakarra, mundua kolorerik gabe uztea izango da.

6, IGANDEA

IV. Antzerki Eskolen Eguna

Ehazek antolatuta eta Kabia Taldearen eskutik antzerki

ikerkuntza: Tailerrak. Plaza Nagusian.

Amaitzeko ogitartekoak,
Sanagustin Kulturgunean

2TIK 15ERA

CORRADO MASACCI



“ZIRKOA eta
TXONTXONGILOA”

Ikastetxerako eskaintzak:

Ikastetxeentzat bereziki zuzenduta egilearekin erakusketa gidatua eskola orduetan. Ikasleen adina 4 urtetik 12 urte bitartekoa.

Goizean 9:15etan hasi eta hiru ordu laurdenero iraupena izango dute saio bakoitzak. Ikasleak erakusketa ikusi nahi izan ezkerro, jarri harremanetan Udal kultur bulegoarekin 943 157 068.

Bestalde, **ERAKUSKETA** ikusteko aukera izango dute herritarrak 2016ko azaroaren 2tik 15arte, astegunetan 18:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 12:00etatik 14:00etara. **Betharram Aretoan.**

ESKOLA EDO GAZTETXOEI ZUZENDURIKO ANTZERKI 7-8-9

AZAROAK 7, ASTELEHENA

- Ikastetxea: BERMEOKO SAGRADO CORAZON IKASTETXEA
- Ordua: 11:00etan
- Antzezlanak: EDERRA ETA PIZTIA eta PETER PAN
- Antzezleen maila: LH 5
- Ikusleak: LH 3, LH4, eta LH5

AZAROAK 8, ASTEARTEA

- Ikastetxea: KUKUKA ANTZERKI IKASTOLA
- Ordua: 11:00etan
- Antzezlanak:
 - BIHOTZ GAZTEEN IRAULTZA
 - DANTZA GARAIKIDEA
 - IKUSI DEN ANTZEZLAN ONENA
- Antzezleen maila: DBH 1
- Ikusleak: LH 5, LH6 eta DBH 1

AZAROAK 9, ASTEAZKENA

- Ikastetxea: IKASBERRI - ORIO
- Ordua: 11:00etan
- Antzezlanak: IÑAUTERIAK
- Antzezleen maila: DBH 2
- Ikusleak: LH6, DBH 1, DBH 2 eta DBH 3
- Antzezlanak: SERAFINA ON LINE
- Antzezleen maila: DBH 4
- Ikusleak: LH6, DBH 1, DBH 2 eta DBH 3



AZAROAK 10, OSTEGUNA

HELDUENTZAT

21:00etan, udaletxeko ganbaran

SAREAN KATEATUAK NOMOFBIKAK



FITXA ARTISTIKOA

- Aktoreak: Olatz Beobide, Belen Cruz eta Amaia Lizarralde.
- Iraupena: 40 min
- Banaketa: Ttipia, kultura-sustapenak
- Kanpo begirada: Agurtzane Intxaurreaga
- Diseinu grafikoa: Iurre Aranburu

SINOPSISIA

Nomofobia aitzakiatzat hartuta hiru emakumek ikusleekin batera terapia bati egingo diote aurrera.

Hasteko elkarrekin test bat egingo dute menpekotasuna zenbatekoa den neurtzeko. Ondoren, gizartean hain hedatuta dagoen gaitz hau, kasu ezberdin ugarietan ikusteko parada izango dugu: Ofizio ezberdinetako langileek, umeeek, nerabeeek, adineko emakumeek, batzuetan sketch tankeran eta bestetan bakarriketa gisa, euren bizipenak aurkeztuko dizkigute, beti ere umorea lagun, burua astintzeko asmotan.

Nomofobia: agian eritasunak jota zaude eta oraindik ez dakizu. Sakeleko edo mugikorrenganako menpekotasuna, askorentzat XXI. mendeko gaixotasuna da. Adituek diotenez, biztanleriaren parte handi bati eragiten dioten gaitz bezala diagnostikatu daiteke egun; hori bai, kaltetuak ez dira gaitzaren garrantziaz ohartu ere egiten.

AZAROAK 11, OSTIRALA

HELDUENTZAT

21:30ean, Soreasu Antzokian

MAMI LEBRUN XAKE PRODUKZIOAK



FITXA ARTISTIKOA

- Aktoreak: Ane Pikaza, Kepa Errasti eta Ainara Ortega
- Zuzendaria: Getari Etxegarai
- Zuzendari laguntzailea: Xabier Ormazabal
- Gidoia: Kepa Errasti
- Argiztapena: David Alcorta
- Eszenografia: Eskenitek
- Jantziak: Lan taldea
- Musika eta moldaketak: Pascal Gaigne
- Ekoizpena eta banaketa: Xake Produksioak

SINOPSISIA

Egoitz eta Miren amona Kontxa hil berriaren omenaldia prestatzen ari dira. Amonaren etxeko ganbaran aurkitutako eguneroko batzuetan oinarrituko dira, Kontxak gaztetan Pariseko Cabaret batean bizitakoak kontatzeko. Horixe izango da omenaldiaren ardatza. Hala ere, Mireni kontatu ez dion sekretu bat dauka Egoitzek...

AZAROAK 12, LARUNBATA

HELDUENTZAT

21:30ean, Soreasu Antzokian

BI IZARREN KALENTURAK TXALO PRODUKZIOAK



FITXA ARTISTIKOA

- Egilea: Victor Haim
- Frantsesetik Itzulpena: Maribi Arrieta
- Euskarazko Itzulpena: Ramon Agirre
- Aktoreak : Iñake Irastorza eta Ane Gabarain
- Musika: Audio Network
- Eszenografia : Asier Sancho Senosiain
- Eszenografi Egilea: Escenica Integral
- Jantzien Diseinua: Cristina Martinez
- Argiztapena: Julen Zaballa
- Teknikoa: Alfredo Medina Lirio
- Argazkiak : Sergio Parra
- Kartela: Sergio Parra
- Atrezzoak : Cristina Martinez
- Aholkularitza Juridikoa: Hator
- Asegurogintza: Fremap
- Ekoizpen Exekutiboa Martin Agirre
- Ekoizpen Arduraduna: Xabier Agirre
- Ekoizpena: Txalo
- Banaketa: Ztp Banaketak
- Zuzendaria: Begoña Bilbao Lejarzegi

SINOPSISIA

Antzokia hutsik dago eta lehen entsegu-eguna da. Bi emakumek aspaldiko partez egingo dute berriro topo: Hortentsia, maila handiko aktorea ezaguna eta Gertrudis, idazle famatua, dramagilea eta antzerki-zuzendaria. Bikote zaila, bai alajaina! Zuri-beltz edo ilun-argitan, biak dira guztiz ezberdinak entseguen nola heldu erabakitze gairan. BI IZARREN KALENTURAK antzerki-obra bi emakumeen arteko maitasun/gorrito sentimenduen talka eta norgehiagokaren kontaketa da, komedia klabea. Antzerki munduari buruzko satira umoretsu eta ospindu honek komedia onenaren Moliere saria jaso zuen eta Victor Haïm egileak ere, autore onenaren saria.

AZAROAK 13, IGANDEA

HAUR + HELDUENTZAT

17:00etan, Soreasu Antzokian

FUTBOLARIAK ETA PRINTSESAK EIDADE



FITXA ARTISTIKOA

- Testua eta zuzendaritza: Galder Perez
- Aktoreak: Jon Zubiaga (Osoron) eta Olatz Pagalday
- Argazkiak: Ilara
- Ekoizpena: Eidabe
- Diseinua: Biko komunikazioa

SINOPSISIA

Odei eta Lur klasetik ihes egin duten neska eta mutila dira. Besteengandik ezberdin sentitzen dira, ez dituztelako neska ala mutil bati egotzen zaizkion arauak bete nahi. Lurrek, Lur izan nahi du eta Odeik, Odei, inork esan gabe nola jokatu behar duten; mutila izateagatik futboleko jokatu behar duen ala neska izateagatik printzesak atsegin behar dituen.

Topiko sexistekin hautsi nahi duen haur eta gaztetxoentzako komedia azkarra. Esketx moduko eszena laburretan zehar, parekidetasunean bizitzea zailtzen duten egoerak umorez agerian utziko dituzte, antzerki jolasa eta musika lagun dutela.

Barrea mundua iraultzeko modurik ederrena izan daiteke, sekula samurtasuna ahaztu gabe, gure sentimenduek egiten baikaituzte aske. Eta horixe izan nahi dute, hain zuzen ere, Lurrek eta Odeik, libre, nahi duten hori adierazi, bizi eta sentitzeko, inposaketa eta etiketa sexistarik gabe mundu aske batean.

AZAROAK 18, OSTIRALA

HELDUENTZAT

21:30ean, Soreasu Antzokian

SWEENEY

EROMEN PRODUKZIOAK



FITXA ARTISTIKOA

- Egilea: Stephen Sondheim
- Aktoreak: Eider Iturralde, Goizane Barroso, Lorea Alberdi, Mirari Astorkia, Mireia Galarza, Amaia Odriozola, Maialen Kortadi, Edurne Errasti, Maider Arsuaga, Estitxu Elduaien, Erika Olaizola, Anne Uria, Inma Izeta, Xanti Arrizabalaga, Mikel Ibarguren, Ainhoa Casina, Juan Alberto Gaztañaga, Ekain Ibarguren, Maria Blanco eta Manolo Gaztañaga.
- Testua euskaratzea, gidoia, dramaturgia eta zuzendaritza: Amancaay Gaztañaga.
- Musikaren egokitzapena: Jagoba Astiazaran.
- Argiztapen lanak: Joel Crespo.
- Produzioa: Eromen produkzioak.

SINOPSISIA

Benjamin Barker arrazoirik gabe epaitua eta kartzelaratuia izan ondoren Londresera itzuliko da, han utzitako emazte eta alabaren bila. Baina bertan topatuko duena ez da atzean utzi zuen bizitza...

Stephen Sondheim-en "Sweeney Todd" musikal ezagunean oinarritutako antzezlan musikatua. Erritmo ezberdinak eta katigatzen duen thrillerra. Komedia ilun, baino erakargarria.

AZAROAK 19, LARUNBATA

HELDUENTZAT

21:30ean, Soreasu Antzokian

E, PETREL!

ASTROLABIUM TEATROA



FITXA ARTISTIKOA

- Egilea: Julio Villar
- Moldaketa: Mikel Sarriegi
- Euskarako: Itzulpena Itziar Otegi
- Zuzendaria: Mikel Sarriegi
- Ikuskizunaren Zuzendaritza Orokorri Laguntza: Hernan Gené
- Jantzien diseinatzailea: Ane Urtizberea
- Argiztapen-diseinatzailea: David Alcorta
- Musika: Iñaki Dieguez
- Ekoizpena: Astrolabium Teatroa
- Zuzendari-laguntzailea: Asier Oruesagasti
- Eszenografiaren errealizazioa: Carlos Arruti / Anabel Varona (Maushaus)
- Atrezzoza: Astrolabium Teatroa / Maushaus
- Argiztapen eta soinu-teknikaria: David Alcorta
- Aktoreak: Mikel Sarriegi, Alvaro Garayalde eta Iñaki Dieguez

SINOPSISIA

Antzezlan horren oinarrian Julio Villarren *¡Eh, petrel! Cuaderno de un navegante solitario* liburua dago, Mikel Sarriegik moldatua. Liburuan, Julio Villarrek Mistral belaontzian egindako bidaia gogoangarria kontatzen da: 1968an Bartzelonatik abiatu eta, 38.000 itsas milia egin ostean, Donostiara iritsi zen 1972an, munduaren bira eginda. Arriskuz, gorabeheraz eta zirrarez betetako bidaia bat, askatasun-sentimenduaren bultzadaz egina. Astrolabium Teatroaren lan honek Julio Villarren bidaia hura kontatzen digu, garai hartako eta egungo protagonistaren ikuspegitik. Lagun baten eta musikari baten eskutik, Julio Villar abentura hartara bultzatu zuten arrazoiak berri izango dugu, haren nortasunean barneratuko gara, eta bidaia gogoangarri hartako zenbait pasadizo biziko ditugu. Gaur egungo Julioren nondik norakoak ere agertuko dira, orain egiten duen bizimodua eta haren bidaiak. Ordubetik inguruko lan honetan Julioren hainbat alderdi agertuko dira: batetik, mendizalea, abenturazalea eta nabigatzailea; eta, bestetik, Julio ameslaria eta poeta. Naturak eta Lurrak liluratuta bizi den pertsona uler-tzen saiatuko gara, bai eta haizeak, izarrek eta ilargiak harengan sortzen dituzten sentimenduak ere. Gure bizimoduari eta egungo gizarteari beste ikuspegi batetik begiratzera gonbidatuko gaitu antzezlanak.

AZAROAK 20, IGANDEA

HAUR + HELDUENTZAT

17:00etan, Soreasu Antzokian

AZKEN EGUZKILOREA PATATA TROPIKALA ANTZERKI TALDEA



FITXA ARTISTIKOA

- Gidoia: PATATA TROPIKALA ANTZERKI TALDEA
- Zuzendaria: IKER ETXARRI
- Antzezleak: JUDITH POVES, IKER ETXARRI eta MAITE PEREA
- Atrezzoak: IKER ETXARRI
- Dekoratuak: PATATA TROPIKALA ANTZERKI TALDEA
- Jantziak: JUDITH POVES,
- Musikak: SERGIO ZURUTUZA
- Argi diseinua: JAIME MAYO (JUNKY)

SINOPSISIA

ONGI ETORRI baserriko KATTALIN herrira jeitsi eta bere lagun guztiak desagertu direla ohartuko da. Herrian ez du gertatu denaz inongo erantzunik topatuko. Beraz adorea bete eta MARI Jainkosari galdetzeraz abiatuko da, nahiz eta basoan betirako arrapatuta geratu daitekeela jakin. Hemendik aurrera, KATTALIN, MITOLOGIAN murgilduko da haziko den AZKEN EGUZKILOREA topatzeko. Bertan, MARI, BASAJAUN, TARTALO, GALTZAGORRIAK eta JENTILAK ezagutuko ditu. Baita GAUEKO Beldurgarria ere PATATA TROPIKALA ANTZERKI LABORATEGIAK berriro beste abentura dibertigarri batean murgilduko gaitu. Bertan TXONTXONGILOAK, MASKARAK, ANTZERKIA, UMOREA eta IRUDIMENA dantzan ikusiko ditugu. EUSKAL KULTURAREN adierazgarria den EUSKAL MITOLOGIA landuz.

ZIKLO BEREZIA ANTZERKI ALTERNATIBOA

AZAROAK 24, OSTEGUNA

HELDUENTZAT

21:30ean, Gaztetexean

ZERURA ERORIA ANODINO TEATROA

20:00etatik 21:15etara jantoki bejetarianoa

ZERURA ERORIA

Kriston eromena



FITXA ARTISTIKOA

- Aktoreak: Florentino Badiola, Aitor Fernandino eta Aiora Sedano.
- Testua: Mikel Fernandino.
- Zuzendaria: Pablo Ibarluzea.
- Euskarara itzultzea: Iñaki Ziarrusta.
- Jantziak: enriqueta Vega.
- Kartelaren diseinua: Estibaliz Valiño.

SINOPSISIA

Zerbait ba al dago hil ostean? Zerbait badako, nora goaz? Gora? Behera? Bizitutakoaren arabera erabakiko al da norabidea? Ezinbestekoa da bizitza produktiboa ematea hildakoekin joan ahal izateko? Nola deitzen dira hilda zaudenean dituzun bizipenak? Hildakoen bizipenak? Bizi penak? Hil penak?

Bizitzaldi ezgauza bezain zozo baten ondoren, Armandok zeruan atseden hartzea besterik ez zuen nahi. Baina kapitalismoaren atzaparkadak eta krisi ekonomikoa zeruraino iritsi dira, eta ez zuen espero bere produktibitate eskasak atseden hartzea galaraziko zionik. Sartzerik izango al du?

Eta zuk, etxeko lan guztiak eginda dituzu arimen mundura bidaiatzeko?

AZAROAK 25, OSTIRALA
HELDUENTZAT
21:30ean, Gaztetexean

MR. SEÑORA METROKOADROKA

20:00etatik 21:15etara jantoki bejetarianoa



FITXA ARTISTIKOA

- Taldea: Metrokoadroka kolektiboa.
- Oholtza gainean: Ainhoa Alberdi, Amaia Corral, Joseba Roldan eta Oier Guillan.
- Kartela eta estetika: Idoia Beratarbide.
- Iraupena: 55 minutu.

SINOPSISIA

Mr. Señora antzoki bateko oholtzara igo eta publikoarekin hitz egiten hasi da: begiratuak sentitzen diren gorputzei buruzko gogoeta egin du batetik, bizitzaren edozein arlotan inoiz armairutik ateratzeko pausua eman dutenei maitasun deklarazio bat eskaini die bestetik. Umorez, aldarritz, arima probokatzailez.

AZAROAK 26, LARUNBATA
HELDUENTZAT
21:30ean, Soreasu Antzokian

IÑAKI BERGARA “PIO” eta KONTXU ODRIUZOLARI AZKEN AGURRA
KEINU ETA TXALO ZAPARRADA BAT ANTZERKIZALE GUZTION PARTETIK

KONTZERTU ANTZEZTUA AHANTZITAKO OROITZAPENAK ELKANO ABESBATZA




FITXA ARTISTIKOA

- Maritxu: Itziar Aizpuru
- Maddi: Maialen Urbietta
- Getariako Elkano abesbatza
- Pianoa: Maite Bereziartua
- Gitarra: Unai Martinez
- Perkusioa: Unai Frantsesena
- Trikitilariak: Jone Urbietta eta Iزارo Lestayo
- Ipuina: Felipe Murillo
- Ipuinaren egokitzapena eta testu dramatikoak: Uxue Alberdi
- Diseinua: Ane Azkue

SINOPSISIA

Maritxu alzheimerak jota dago. Ez ditu gogoratzen bere ingurukoen izenak. Apenas gogoratzen du bera nor den ere. Baina gogoratzen du zein izan zen. Txakolindegikoaren alaba. Seme alabak hartuta, herrira jaitsi eta Intxauspe dendan lanean aritu zena. Nahigabeen nabigatzera ohitua, trabanairru emozionaletatik indartua ateratzen zen emakumea. Gaur egun, bere alaba, honen bikotea eta Maddi bilobarekin bizi den emakume gogortua. Biak izango dira protagonista, amona eta biloba, Maritxu eta Maddi, Itziar Aizpuru eta Maialen Urbietta aktoresten baitan, Uxue Alberdik moldatutako testua oinarri. Eta bien eskutik, familiako hiru generazioen nondik norakoetan murgilduko gara. Bere bidea egiteko uko egin behar izan ziotena gogoratu eta hartutako erabakiek biziarazi zizkieten poztasunak izango dituzte hizpide. Baina kontaketa ez dira bakarrik izango, emakume hauek beraien biografia musikala izango dute lagun kontakutakoak kantatu daitezkeelako. Horretan bidelagun izango dute Elkano abesbatza. Bizitakoari musika ipiniaz ibilbidea dotoretzen. Zuzeneko kantuari zuzeneko musikariak gehitu behar dizkiogu. Guztiok batera osatzen dugu “Ahantzitako oroitzapenak” ikuskizuna.



AZPEITIA

XXXIV

EUSKAL
ANTZERKI
TOPAKETAK,
2016ko UDAZKENA



1. asteartea ANTZERKI TOPAKETEI HASERA EMANEZ

L'entresor Compañie Têtes De Mules
17:00etan /19:00etan, Plaza Nagusian

4. ostirala **Helduentzat** "Francoren Bilobarri Gutuna"

Arte Drama - Le Petit Theatre De Pain - Dejabu
21:30ean, Soreasu Antzokian

5. larunbata **Helduentzat**

"Koaderno Zuri" Hika Teatrea
21:30ean, Soreasu Antzokian

6. igandea

IV. Antzerki Eskolen Eguna

Ehazek antolatuta eta Kabia Taldearen eskutik
antzerki ikerkuntza: **Tailerrak**
Plaza Nagusian. Armatzeko ogitartekoak Sanagustin Kulturgunean

Haur + Helduentzat

"Gu" Borobil Teatrea
17:00etan, Soreasu Antzokian

7,8,9 Eskola edo Gaztetxoei Zuzenduriko Antzerkia

11:00etan, Soreasu Antzokian

2tik 15arte ZIRKOA ETA TXONTXONGILOAK

Corrado Masacci-ren txontxogilo tailera eta erakusketa. Betharram Aretoa

10. osteguna **Helduentzat**

"Sarean Kateatuak" Nomofobikak
21:00etan, Udaletxeko Ganbaran

11. ostirala **Helduentzat**

"Mami Lebrun" Xake Produkzioak
21:30ean, Soreasu Antzokian

12. larunbata **Helduentzat**

"Bi Izarren Kalenturak"
Txalo Produkzioak
21:30ean, Soreasu Antzokian

13. igandea

Haur + Helduentzat

"Futbolariak Eta Printzesak" Eidabe
17:00etan, Soreasu Antzokian

18. ostirala **Helduentzat**

"Sweeney" Eromen Produkzioak
21:30ean, Soreasu Antzokian

19. larunbata **Helduentzat**

"E, Petrell!" Astrolabiu Teatrea
21:30ean, Soreasu Antzokian

20. igandea **Haur + Helduentzat**

"Azken Eguzkilore" Patata Tropicala
17:00etan, Soreasu Antzokian

ZIKLO BEREZIA ANTZERKI ALTERNATIBOA

24. osteguna

"Zerura Eroria" Anodino Teatrea
21:30ean, Gaztetxean

25. ostirala

"Mr. Señora" Metrokoadroka
21:30ean, Gaztetxean Arratsaldeko 20:00etatik
21:15etara jantoki bejeterianoa

26. larunbata

XXXIV.Euskal Antzerki Topaketen Amaierako Ikuskizuna

Iñaki Bergara "Pio" eta Kontxu Odriozolari
AZKEN AGURRA.

KEINU ETA TXALO ZAPARRADA BAT
antzerkizale guztion partetik.

KONTZERTU ANTZEZTUA "Ahantzitako Oroitzapenak"

Elkano Abesbatza
21:30ean, Soreasu Antzokian